

[Cast/Eusk] Aurrera doa Gasteizko langileon kontrolpeko gune berria, antolakuntza oinarri

GEDAR.EUS :: 03/08/2020

[Fotos] Avanza la nueva zona controlada por los trabajadores de Vitoria-Gasteiz como base organizativa

Noticia original en Gedar

<https://gedar.eus/aktualitatea/langilemugimendua/aurrera-doa-gasteizko-langileon-kontrolpeko-gune-berria-antolakuntza-oinarri/>

Traducción A. Bas. para La Haine

Castellano

El Sindicato de Vivienda de Gasteiz informó el pasado 3 de julio de la toma de posesión de un edificio en la calle Los Herrán. Ahora, unas treinta personas viven allí, repartidos en seis casas. Así, a través de la organización, ha tomado marcha la zona controlada por estos operarios.

Por ejemplo, en las últimas semanas han trabajado en la adecuación del espacio las personas que viven en el bloque expropiado, los miembros del Sindicato de Vivienda y los militantes de la línea socialista. Han conseguido que los aseos y cocinas de todas las casas estén disponibles, salvo en una casa, ya que han hecho toda la instalación en todas las demás. Además, gracias a la campaña puesta en marcha, se han conseguido y llevado muebles como utensilios de cocina, armarios, mesas o sillas.

Por otro lado, las personas que viven en el bloque han comenzado a realizar asambleas semanales con el objetivo de "organizar la convivencia". Trabajan a través de la Asamblea, por ejemplo, el uso y distribución del espacio, la solución de los conflictos que puedan surgir en la convivencia, la organización de auzolan, la limpieza del espacio, la defensa y seguridad del espacio, el ocio, etc.

Sin denuncia

Miembros del Sindicato de la Vivienda han informado de que aún no han recibido ninguna notificación de denuncia por el caso de la repropiedad del complejo. Miembros de una misma familia son los propietarios legales del bloque, que cuenta con más propiedades en la capital alavesa.

A principios de julio, esa misma tarde de la noticia de la reconquista, el sindicato denunció el intento de desalojo ilegal.

Euskera

Gasteizko (Araba) Etxebizitza Sindikatuak uztailaren 3an jakinarazi zuen eraikin bat birjabetu zutela Los Herran kalean. Orain, 30 pertsona inguru bizi dira han, sei etxetan banatuta. Hala, antolakuntza bidez, martxa hartu du langileon kontrolpeko guneak.

Esaterako, azken asteotan **espazioa egokitzeko lanetan** jardun dute bloke birjabetuan bizi diren pertsonek, Etxebizitza Sindikatuko kideek eta Ildo Sozialistako militanteek. Etxe guztietako komun eta sukaldeak erabilgarri egotea lortu dute, etxe batean izan ezik, gainontzeko guztietan egin baitute instalazio osoa. Gainera, abiatutako kanpainari esker, altzariak lortu eta eraman dituzte; besteak beste, sukaldeko tresneria, armairuak, mahaiaiak nahiz aulkiaiak.

Bestalde, blokean bizi diren lagunek **asanbladak** egiteari ekin diote, astero, "elkarbizitza antolatzea" helburu. Asanblada bidez lantzen dituzte, adibidez, espazioaren erabilera eta banaketa, elkarbizitzan sortu daitezkeen gatazken konponbidea, auzolanen antolakuntza, espazioaren garbiketa, espazioaren defentsa eta segurtasun neurriak, aisialdia eta abar.

SALAKETARIK EZ

Etxebizitza Sindikatuko kideek jakinarazi dutenez, oraindik ez dute, gunearen birjabetzearen harira, salaketa jakinarazpenik jaso. Familia bereko kideak dira blokearen legezko jabeak, eta Arabako hiriburuan jabego gehiago dituzte.

Uztailaren hasieran, birjabetzearen berri eman eta arratsalde horretan bertan, legez kanpoko desalojo saiakera salatu zuen sindikatuak.

<https://eh.lahaine.org/cast-eusk-aurrera-doa-gasteizko>